

**ESKUALDEAREN GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA BULTZATZEKO  
OÑATIKO UDALAREN ETA BAILARA Industrial Network ELKARTEAREN  
ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA**

---

Oñatin, 2026ko irailean.

**ELKARTUTA**

Alde batetik, OÑATIKO UDALA, IFZ zk. P2006300D duena eta haren izenean  
IZARO ELORZA ARREGI anderea, Oñatiko Udaleko alkatea.

Eta bestetik, BAILARA Industrial Network ,aurrerantzean BAILARA, IFK zk. G44772226  
duena eta haren izenean DANIEL MIGUELEZ MARTIN jauna, BAILARA Elkartearen  
lehendakaria.

**AZALTZEN DUTE:**

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 17.1.34 artikulua araberak, udalerriak eskumen propioak baliatu ahal izango ditu, ekonomia eta gizarte-garapenaren arloan. BAILARA irabazi-asmorik gabeko elkarte da eta besteak beste, Debagoiena eskualdearen garapen sozial eta ekonomikoa bultzatzea du helburu.

BAILARAK Udalarekin lankidetzan jardun nahi du, ondorengo helburuekin:

- Udalerriaren garapen ekonomiko eta sozialerako lankidetzak-estrategia publiko-pribatuak definitzea eta aplikatzea.
- Udalerriaren etorkizuneko erronkei batera aurre egitea.
- Udalerriko enpresen lehiakortasuna sustatuko duten politika publikoak egiten laguntzea eta horretarako, beren esperientzia eta ezagutza eskaintzea.
- Udalerriko enpresa berriak erakartzeko ekintzak sustatzea, elkartean udalerriko enpresen presentzia areagotzeko.

BAILARAK lan plangintza bat egin du 2026 ekitaldirako eta plan horrek, Debagoienaren eta bere enpresen lurralde-lehiakortasuna sustatzeko jardura-multzo bat jasotzen ditu.

Ondorioz, helburu eta interes komunak bat datozela kontuan hartuta, bi erakundeek lankidetzak-loturak ezartzea komeni dela uste dute, lankidetzak-hitzarmen hau sinatuta.

Alkateak izango du lankidetzak-hitzarmen hau sinatzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzordearen onarpenaren ondoren, toki araubidearen oinarriak eta Dirulaguntzen ordenantza orokorra arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21.artikuluak eta aplikatzekoak diren gainerako legeak.

Bi alderdiek lankidetza-hitzarmen hau adostasunez sinatzeko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri eta

## **ADOSTU DUTE**

### **Lehenengoa. Hitzarmenaren helburua.**

Hitzarmen honen helburua, Udalaren eta BAILARAREN arteko lankidetza da, 2026 ekitaldirako lan plangintzan jasotako ekintzak gauzatzeko.

2026ko ekitaldirako lan plangintza, hitzarmen honen eranskin gisa erantsi da.

### **Bigarrena. Ekarpen ekonomikoa.**

Oñatiko Udalak, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a artikulua araber, BAILARA elkarteari

7.877,21 euroko izenduna emateko konpromisoa hartzen du, 2026 ekitaldirako Lan Plangintzan jasotako jarduerak garatzeko.

### **Hirugarrena. Beste laguntza edo dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.**

Dirulaguntza hau jasotzea, bateragarria izango da foru, autonomia, estatu edo Europar Batasuneko beste administrazio, erakunde publiko eta pribatuetatik datozen dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Inola ere ezin izango da finantzaketa bikoitzik egin, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan adierazitakoaren arabera.

### **Laugarrena. Ordaintzeko era.**

Dirulaguntzaren %50, hitzarmena sinatzen den momentuan. Gainontzeko zenbatekoa, gehienez ere %50a osatu arte, ekitaldiaren amaieran, memoria eta zuriketa ekonomikoa aurkeztu eta udalak onespina emandakoan.

### **Bosgarrena. BAILARAREN betebeharrak.**

BAILARAK ondorengo konpromisoak hartzen ditu bere gain:

- 1- Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea
- 2- Hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzea
- 3- Dirulaguntzei buruz, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako egoeretako batean ere ez egotea.
- 4- Finantza-egiaztapeneko eta kontroleko jarduketari men egitea eta legearen arabera eskatzen diren datuak ematea.
- 5- Kontabilitateko liburuak, erregistro bereziak eta gainerako dokumentuak edukitzea, onuradunari aplikatzeko zaion merkataritzako eta sektoreko legeak eskatzen diren datuak ematea.
- 6- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardunetan xede izan daitezkeen heinean.
- 7- Jasotako funtsak itzultzea dirulaguntzei buruzko lege orokorraren 37.artikuluan jasotako kasuetan.

- 8- Dirulaguntzari buruzko lege orokorraren 14. artikuluan zehaztutako gainerako betebeharrak betetzea.
- 9- Udalak eskatzen dizkion bilera eta jarduera guztietan parte hartzea eta eskatzen zaion informazioa ematea.
- 10- Diruz lagundutako jarduerak sortzen dituen esku-hartze publikoetan, argitalpenetan, liburuxketan edo publizitate orokorrean euskara erabiltzea.
- 11- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatzea diruz lagundutako jarduerak sortzen dituen esku-hartze publikoetan, argitalpenetan, liburuxkan edo publizitate orokorrean.

#### **Seigarrena. Hitzarmenaren zabalkundea.**

BAILARAK bere gain hartzen du BAILARAREN jarduerak finantzatzeko Udalaren laguntza aipatzeko erantzukizuna, egin ditzakeen ekitaldi, agerraldi eta adierazpen publikoetan, bai eta diruz lagundutako jarduerak sortzen dituen argitalpen, liburuxka edo publizitate orokorrean ere.

#### **Zazpigarrena. Hitzarmenaren iraupena.**

Hitzarmen hau, sinatzen den egunetik 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, biak barne.

#### **Zortzigarrena. Jardueren justifikazioa.**

BAILARAK konpromisoa hartzen du 2026ko ekitaldian egindako jardueren justifikazio-memoria aurkezteko. Gastuaren %100 justifikatu ezean, BAILARAK zati proportzionala itzultzeko konpromisoa hartzen du. Jardueren justifikazio-memoria aurkezteko epea, 2026ko abenduaren 31n amaituko da.

#### **Bederatzigarrena. Hitzarmenaren luzapena.**

Hitzarmen hau urtero eguneratu ahal izango da legegintzaldiko hurrengo ekitaldietarako alde biek horrela erabakitzen badute.

#### **Hamargarrena. Dirulaguntza emateko baldintzak egiaztatzea.**

Oñatiko Udalak, Nisae - Euskadiko Administrazioen Interoperabilitate eta Segurtasun Nodoaren bidez, dirulaguntzaren izapidetze administratiborako beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, horretarako beste administrazio publiko batzuetatik dagokion informazioa eskuratuz. Zehazki, honako zerbitzu hauek kontsultatuko dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: zerga-betebeharrak egunean izateari buruzko kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketak egunean izateari buruzko kontsulta.

BAILARA elkarteak kontsulta horiek egiteko aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango du, horretarako bere borondatea berariaz adieraziz. Kasu horretan, dirulaguntza emateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, ezarritako epeetan eta baldintzetan. Eskatutako dokumentazioa ez aurkezteak prozeduraren izapidetzearekin jarraitzeko ezintasuna ekar dezake.

Eta adostasunaren adierazgarri bi aldeek hitzarmen hau izenpetzen dute goian aipatutako leku eta egunean.

OÑATIKO UDALA

IZARO ELORZA ARREGI anderea

BAILARA ELKARTEA

DANIEL MIGUELEZ MARTIN jauna